

[Eusk/Cast] Txikito, Danitxu, Jon Kepa... Zuekin gaude!

SENDOA JURADO GARCIA –MILITANTE PRO AMNISTÍA :: 22/06/2016

Esta decisión que han tomado en vuestra contra no es más que otro intento por meter miedo al resto de kides que piensan como vosotros, decisión basada, además, en el odio

[Euskara]

Gutun hau idazten hasi naizen momentuan harrotasuna eta lotsaren arteko nahasketa sentitzen dut. Harro sentitzen naiz zuen jarrera duinarekin herri baten ausardia, koherentzia eta eskuzabaltasunaren isla bihurtzen zaretelako, makurtu ez ezik hainbeste kide akabatu dituen kartzeletako biolentzia hiltzaileari aurrez aurre begiratzen diozuelako; baina lotsa ere sentitzen dut, beste garai batzuetan aipatutako balioak mantentzeagatik txalotzen zintuztetenetako batzuek, zuek estigmatizatzeko eta babes zein laguntzarik gabe gelditzeko saiakera antzuan dabiltzalako, eta dena “Nire izenean ez!” ozen oihukatu duzuelako gu zigortzea helburu duten epaimahaiei eskua luzatu eta ultraeskuindarrekin akordio politikoetara heltzea eredu bihurtu nahi duten garai hauetan.

Gustatuko litzaidake gutun bat idazten dudanean betiko etsaiaren aurka ari naizela sentitzea, eta zinez iritzi artikulua batean Sortu aipatzen dudana bakoitzean nire buruari esaten diodala azken aldia izango dela, hemendik aurrera tokatzen dena amnistia aldarrikatzea dela eta zuekin batera herri oso bat gatibu mantentzen duten estatuen izaera faxista agerian uztea dela. Baina zailegia jartzen didate, are gehiago Sorturen estrategiaren baitan kokatzen diren abokatuak direnean babes juridikoa kenduko dizuetela helarazten dizuetenean, ez aurpegira, dotoreziaren arauetan idatzita datorren moduan, baizik eta beste kide batzuen bitartez. Zaila jartzen didate bere semearen argazia kontzentrazioetan egongo ez dela esan eta gero, lotsagabeki ama bati kontzentrazio horietara joaten jarrai dezakeela esaten diotenak Sortuko militanteak direnean.

Orain laguntza oro kentzen dizuete diziplitatuak ez omen zaretelako izan eta horrek erakusten du, bizitzako esparru guztietan bezala, afera honetan ere klaseen arteko borroka bizirik dirauela. Zuekin hartu duten jarrera ez ziren hartzen ausartu urtetan zehar Kolektiboaren ildo politikotik kanpo zeuden iritzi artikulua idazten zituzten politikari presoekin, agian beraiek ez zirelako zuek bezalako “soldadutxoak”, izen handiko ofizialak baizik. Ez dute neurrik hartu ere kartzela barruan lanerako destinoak betetzen ari diren “kideen” aurka, agian beraiek ez dutelako zalantzan jartzen garai bateko politikari presoen estatusa eta, ez dut gaizki pentsatu nahi, agian Kolektiboko zenbait tabu apurtzeko lagungarriak direlako. Ah! Ez zenekitela batzuek Kolektiboak debekatzen dituen destinoak egiten ari direla? Ba bai, orain gutxi zuek inoiz gehiago defendatuko ez zaituen abokatu batek publikoki ukatu zuen arren, hori gertatzen ari da. Baina ez du axola, arazoa zuek zaretelako!

Bagenekien une hau helduko zela. Iazko udazkenean jakin genuen Sortu hainbat kide EPPKtik kanporatzeko presionatzen ari zela “estrategia berria” deritzan asimilazio estrategia zaharra onartzen ez zutelako. Jendeak horrelako kanporaketak ez zituela ulertuko

konturatuta Amnistiaren Aldeko Mugimenduak EPPK zatitzea zuela helburu zabaltzen hasi ziren.

Beranduago Parisko epaiketako oharra etorri zen, eta Danitxuren gutuna, eta Jon Keparena, eta Usurbilgo prentsaurrekoa (badago bere izena zerrendatik kentzea eskatu duenik engainatuta sentitu delako), eta orain, zuekiko hartzen duten jarrerarekin, zirkulua ixten da hasi zen toki berean: kristorenak entzun behar izan genituen duintasun jarrerak mantentzeagatik inor ez zela botata geldituko esateagatik, baina botata utzi nahi izan zaituzteten honetan, gure konpromisoan berresten garela esan behar dizuet. Herria zuekin dago eta dagoeneko antolatzen hasi da.

Azken hausnarketa moduan esan nahiko nuke zuen aurka hartu duten erabaki hau zuek bezala pentsatzen duten gainontzeko kideak beldurtzeko saiakera bat gehiago besterik ez dela izan, gorrotoan oinarritutakoa gainera. Berdin zaie hauteskunde kanpaina erdian gertatzea, kontrakoa pentsatzen bagenuen ere, beraientzat hauteskundeak baino zer bait garrantzitsuagoa badagoelako, eta hori dena lotuta eta ondo lotuta uztea da. Muga guztiak gainditu dituzte, hainbesteraino asistentzia medikurik gabe ere utzi nahi izan zaituztela, hainbesteraino preso ohiak lanpostua galtzearekin mehatxatu dituztela, hainbesteraino iparra guztiz galdu dutela. Guretzat, ordea, zuek zarete iparra.

Txikito, Jon Kepa eta Danitxu: har ezazue besarkada handi bat Euskal Herritik, milaka pertsona direlako zuek eredutzat hartzen zaituztenak. Eskerrik asko hiruroi!

Sendoa Jurado Garcia- Amnistiaren aldeko militantea.

[Castellano]

Txikito, Danitxu, Jon Kepa... Zuekin gaude!

En el momento en el que empiezo a escribir esta carta siento una mezcla entre orgullo y vergüenza. Me siento orgulloso porque con vuestra actitud de dignidad os convertís en reflejo del valor, la coherencia y la generosidad de un pueblo ya que, además de no arrodillaros, miráis a la cara a la violencia asesina de esa cárcel que ha acabado con la vida de tantos kides; pero también siento vergüenza porque algunos de los que en otros tiempos os aplaudían por mantener los valores mencionados, están empeñados en un inútil intento por estigmatizaros y que os quedéis sin ninguna ayuda, y todo por que habéis gritado “¡No en mi nombre!” en una época en la que quieren convertir en ejemplo dar la mano a los tribunales que pretenden castigarnos, o llegar a acuerdos políticos con ultraderechistas.

Cuando escribo una carta me gustaría sentir que actúo contra el enemigo de siempre, y de verdad que cada vez que en un artículo de opinión menciono a Sortu me digo a mí mismo que será la última vez, que lo que toca de aquí en adelante es reivindicar la amnistía y dejar al descubierto el carácter fascista de los estados que mantienen cautivo, junto a vosotros, a todo un pueblo. Pero me lo ponen difícil, más aún cuando son los abogados que se identifican con la estrategia de Sortu quienes os hacen llegar, no a la cara como viene escrito en las normas de la elegancia sino por medio de un compañero vuestro, que os van a quitar la protección jurídica. Me lo ponen difícil cuando son militantes de Sortu quienes tras

decirle a una madre que la foto de su hijo no estará en las concentraciones, añaden sin ninguna vergüenza que ella podrá seguir acudiendo a esas concentraciones.

Ahora os quitan toda ayuda porque, al parecer, no habéis sido disciplinados, y eso demuestra, como en todos los ámbitos de la vida, que también en este asunto la lucha de clases sigue vigente. No se atrevieron a tomar la actitud que han tomado respecto a vosotros con los políticos presos que durante años escribieron artículos que se situaban fuera de la línea política del Colectivo, tal vez porque ellos no eran “soldaditos”, sino oficiales de gran renombre. Tampoco han tomado medidas contra los “kides” que cumplen destinos de trabajos dentro de la cárcel, tal vez porque ellos no ponen en duda el estatus de los políticos presos y, no quiero ser malpensado, tal vez porque ayudan a romper algunos tabús del Colectivo. ¡Ah! ¿Qué no sabíais que algunos están haciendo destinos prohibidos por el Colectivo? Pues sí, aunque hace poco uno de los abogados que no os volverá a defender lo negó públicamente, eso está pasando. Pero no importa, porque el problema sois vosotros.

Sabíamos que este momento llegaría. En otoño del año pasado supimos que Sortu estaba presionando para que se expulsara del EPPK a varios kides porque no aceptaban la vieja estrategia de asimilación ahora llamada “nueva estrategia”. Al darse cuenta de que la gente no aceptaría esas expulsiones, empezaron a extender que el objetivo del Movimiento Pro Amnistía era dividir al EPPK. Después vino el escrito del juicio de París, y la carta de Danitxu, y la de Jon Kepa, y la rueda de prensa de Usurbil (hay quien ha pedido que quiten su nombre porque se sintió engañado), y ahora, con la actitud que toman hacia vosotros, se cierra el círculo en el mismo sitio en el que empezó: tuvimos que escuchar de todo por decir que nadie se quedaría tirado por mantener posturas de dignidad, pero ahora que os han dejado tirados, os tengo que decir que nos reafirmamos en nuestro compromiso. El pueblo está con vosotros y ya se ha empezado a organizar.

Como última reflexión quisiera decir que esta decisión que han tomado en vuestra contra no es más que otro intento por meter miedo al resto de kides que piensan como vosotros, decisión basada, además, en el odio. Les da igual que ocurra en medio de la campaña electoral, porque aunque pensábamos lo contrario, para ellos hay algo más importante que las elecciones, y es dejarlo todo atado y bien atado. Han sobrepasado todos los límites, tanto que han pretendido dejaros hasta sin asistencia médica, tanto que han amenazado a ex presos con perder su trabajo, tanto que han perdido totalmente el norte. Sin embargo, para nosotros, el norte sois vosotros.

Txikito, Jon Kepa y Danitxu: recibid un fuerte abrazo desde Euskal Herria, porque son miles las personas para las que sois un ejemplo. ¡Gracias a los tres!

Sendoa Jurado Garcia -Militante pro amnistía

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-txikito-danitxu-jon>